



**BFAKO EEELREN FUNZIONALTASUN  
ASINKRONOEN ESPEZIFIKAZIO  
FUNZIONALAK ETA TEKNIKOAK**

**V1.0.1**

## AURKIBIDEA

<b>1 SARRERA</b> .....	<b>4</b>
1.1 Dokumentuaren helburua.....	4
<b>2 BERTSIOEN KONTROLA</b> .....	<b>5</b>
2.1 Hasierako bertsioa 1.0.0 .....	5
2.2 Hasierako bertsioa 1.0.1 .....	5
<b>3 TERMINOEN LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK</b> .....	<b>6</b>
<b>4 FUNTZIONAMENDU OROKORRA</b> .....	<b>7</b>
4.1 Operatiboa .....	7
4.1.1 Eskabidea .....	7
4.1.1.1 Eskaera.....	7
4.1.1.2 Erantzuna.....	7
4.1.2 Kotsulta.....	7
4.1.2.1 Eskaera.....	8
4.1.2.2 Erantzuna.....	8
4.2 XSD eskemak eta Estrukturak .....	9
4.3 JSONen edukia.....	9
4.4 XML fitxategiaren goiburuaren edukia.....	10
<b>5 FUNTZIONALITASUN ASINKRONOAK</b> .....	<b>11</b>
5.1 Laburpen-izendapena .....	11
5.1.1 Ezaugarriak .....	11
5.1.1.1 Fakturak hautatzeko irizpideak .....	11
5.1.1.2 Multzokatzeko irizpideak .....	12
5.1.2 XSD eskemak .....	12

5.2	Hartzailea duten fakturak .....	12
5.2.1	Ezaugarriak .....	12
5.2.1.1	Fakturak hautatzeko irizpideak .....	13
5.2.2	XSD eskemak .....	13
5.3	Emandako fakturak .....	13
5.3.1	Ezaugarriak .....	13
5.3.1.1	Funtzionalitatea erabiltzeko alta eskaeraren bidalketa .....	14
5.3.2	XSD eskemak .....	14
<b>6</b>	<b>AKATSEN KUDEAKETA .....</b>	<b>15</b>
6.1	Erroreen mezuen zerrenda .....	15

## **1 SARRERA**

### **1.1 Dokumentuaren helburua**

Dokumentuaren helburu nagusia da BFAk zergapekoaren eskura jartzen dituen funtzionaltasun asinkronoen ezaugarri funtzionalak eta teknikoak definitzea.

## **2 BERTSIOEN KONTROLA**

### **2.1 Hasierako bertsioa 1.0.0**

Dokumentuaren sorrera.

### **2.2 Hasierako bertsioa 1.0.1**

Funtzionaltasun asinkrono berriaren zehaztapen teknikoak gehitu dira: Jaulkitako fakturak.

### 3 TERMINOEN LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK

Agiri honen ondorioetarako, hauek izango dira definizioak:

- **Bezeroen aplikazioa:** BFaz kanpoko softwarea, Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako sarrera-zerbitzuen plataformari EEELren informazioa bidaltzeko eskatzen diona.
- **BFA:** Bizkaiko Foru Aldundia.
- **JSON:** Java Script Object Notation, datuak trukatzeko testu formatu sinplea.
- **EEEL:** Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuak.
- **IFZ:** Identifikazio Fiskalerako Zenbakia.
- **Zergapekoa:** PFEZaren araubidearekin bat eginez, jarduera ekonomikoa gauzatzen duen pertsona fisikoa edo izaera juridikorik gabeko erakundea, SZari atxikita dagoen pertsona juridikoa, edo espainiar estatuan egoiliarra ez den eta bertan kokatze iraunkorraren bidez lan egiten duen zergapekoa, EEEZari atxikita dagoena.
- **XML:** eXtended Markup Language etiketak markatzeko lengoia bat da, SGMLtik eratorria, eta dokumentuen egiturak definitzeko balio du.
- **XSD:** XML Schema Definition lengoia bat da, eta XML dokumentu baten egitura definitzeko balio du, berau baliozkotzea ahalbidetuz.

## 4 FUNZIONAMENDU OROKORRA

Bezeroen aplikazioak BFaren sarrera-zerbitzuan egin beharko du eskaera, zeinaren zehaztapenak “EEEL Modu masiboan bidaltzeko zehaztapenak” dokumentuan deskribatzen baitira. Zehaztapen horiek Batuzen webgunean ([www.batuz.eus](http://www.batuz.eus)) argitaratuta daude, “Dokumentazio teknikoa” atalean.

Funtzionaltasun asinkronoek bi operazio dituzte; alde batetik, eskabidea, identifikadore bat ematen duena, eta, bestetik, kontsulta, eskabidean eman den identifikadorearekin egin behar dena. Kontsulta horrek prozesu asinkronoak sortutako datuak ematen ditu.

Kontsulta asinkronoak, izenak adierazten duen moduan, ez dira eskuragarri egongo eskatu eta berehala. Funtzionaltasun bakoitzean adierazten da egindako eskaerak kontsultatzeko denbora-tartea.

Dokumentu honetan zehazten da egin beharreko akatsen kudeaketari buruzko informazio zehatua, “Akatsen kudeaketa” atalean, zehazki.

### 4.1 Operatiboa

Funtzionaltasun asinkronoen informazioa lortzeko **bi pausu** jarraitu behar dira:

1. Eskabidea.
2. Kontsulta.

#### 4.1.1 Eskabidea

Sarrereren web-zerbitzura deitu behar da funtzionaltasun asinkronoaren exekuzioa eskatzeko.

Eskaera honetarako sarrereren web-zerbitzuaren oinarritzko URLa hauxe da:

- <https://sarrerak.bizkaia.eus/N3B4001M/kontsulta>

##### 4.1.1.1 Eskaera

Eskabidea egiteko bidali behar diren datuak exekutatu nahi den funtzionaltasun asinkronoari dagokion XSD eskeman zehazten dira.

Eskema horiek “\_SolicitudPetición” atzizkiarekin deitu dira.

- Adibidez: LROE\_ARS\_AsientosResumen\_SolicitudPeticion\_V1\_0\_0.xsd.

##### 4.1.1.2 Erantzuna

Halaber, ematen diren datuak eskatu den funtzionaltasun asinkronoari dagokion XSD eskeman zehazten dira.

Eskema horiek “\_SolicitudRespuesta” atzizkiarekin deitu dira.

- Adibidez: LROE\_ARS\_AsientosResumen\_SolicitudRespuesta\_V1\_0\_0.xsd.

### 4.1.2 Kontsulta

Aldez aurretik eskatu den prozesu asinkronoak sortu dituen datuak kontsultatzeko eskaera bat egin behar da.

Eskabidea kontsultatzeko sarreren web-zerbitzuaren oinarritzko URLa hauxe da:

- <https://sarrerak.bizkaia.eus/N3B4001M/kontsulta>

#### 4.1.2.1 Eskaera

Aldez aurretik egindako eskabidea kontsultatzeko bidali behar diren datuak kontsultatu nahi den funtzionaltasun asinkronoari dagokion XSD eskeman zehazten dira.

Eskema horiek “\_ConsultaPetición” atzizkiarekin deitu dira.

- Adibidez: LROE\_ARC\_AsientosResumen\_ConsultaPeticion\_V1\_0\_0.xsd.

Orokorrean, eskabide baten kontsulta-eskaera honako eremu hauek osatzen dute:

- Eskabidearen identifikadorea (*IdentificadorSolicitud*).
- Kontsultatu beharreko orrialde kopurua (*NumPaginaConsulta*): sortutako erregistro kopurua orrialde batek eman ditzaken gehieneko erregistro kopurua baino handiagoa bada (XSDean xehatzen da), behar beste orrialde sortuko dira, betiere baimendutako orrialde kopurua gainditu gabe. Orrialde horietako bakoitza eskatzeko, parametro honetan zehaztu beharko da horietako zein orrialde kontsultatu nahi den.

#### 4.1.2.2 Erantzuna

Ematen diren datuak helarazi den funtzionaltasun asinkronoari dagokion XSD eskeman zehazten dira.

Eskema horiek “\_ConsultaRespuesta” atzizkiarekin deitu dira.

- Adibidez: LROE\_ARC\_AsientosResumen\_ConsultaRespuesta\_V1\_0\_0.xsd.

Orokorrean, eskabidearen kontsultak eremu-talde hauek ematen ditu:

- Goiburua.
- Kontsultaren emaitza:
  - Eskabidearen identifikadorea (*IdentificadorSolicitud*).
  - Egoera (*EstadoConsulta*): Egiteke edo Amaituta.
  - Kontsultatutako orrialde kopurua (*NumPaginaConsulta*): eskabide baten kontsultaren eskaeraren fitxategian eskatutako orrialde-zenbakia.
  - Erregistroak daude (*ExistenRegistros*): erregistroak dauden ala ez adierazten du.
  - Orrialde-zenbaketa:
    - Orrialde kopurua, guztira (*NumPaginasTotales*): sortu diren orrialde kopurua, guztira.
    - Erregistro gehiago daude (*ExistenMasRegistros*): erregistro gehiago dauden ala ez adierazten du, hau da, azkenengo orrialdea eskatu den ala ez.
    - Erregistro kopurua, guztira (*NumRegistrosTotales*): sortu diren erregistro kopurua, guztira.
  - Egite data (*FechaRealizacion*): funtzionaltasun asinkronoaren informazioa sortzen duen prozesua exekutatu den data.
  - Datuen finkatze-data (*FechaConsolidacion*): EEELren datuak sisteman finkatuta zeuden data adierazten du funtzionaltasun asinkronoaren informazioa sortzen duen prozesua exekutatu den momentuan. Hau da, eman zen informazioa lortzeko data horretako datuak hartu dira.

- Funtzionaltasun asinkrono bakoitzaren informazio propioa.

## 4.2 XSD eskemak eta Estrukturak

Funtzionaltasun asinkrono bakoitzaren *XSD eskemak* eta *Estrukturak* Batuzen webgunean daude eskuragarri ([www.batuz.eus](http://www.batuz.eus)), “Dokumentazio teknikoa” atalean.

## 4.3 JSONen edukia

Funtzionaltasun asinkrono baten **eskabidearen** web-zerbitzura deitzeko, **JSON**ean jakinarazi behar diren datuak honako hauek dira:

- Kontzeptua (*con*): LROE.
- Atala (*apa*): eskatu den funtzionaltasunari dagokiona.
- Interesduna (*inte*): datuak eskatu diren zergapekoaren (fisikoa ala juridikoa) datuak.
  - IFZ (*nif*).
  - Izena edo sozietatearen izena (*nrs*).
  - Lehenengo abizena (*ap1*).
  - Bigarren abizena (*ap2*).
- Datu garrantzitsuak (*drs*): kontsultatu nahi den eredu eta ekitaldia identifikatzeko beharrezko datuak dira.
  - Eredua (*mode*): datuak kontsultatu nahi diren ereduak da (140 edo 240).
  - Ekitaldia (*ejer*): datuak kontsultatu nahi diren EEELren ekitaldia.

Adibidez, 2024ko laburpen-idazpenak eskatu nahi dituen 140 ereduak dagokion zergapekoak honako datu hauek bidali behar ditu:

```
eus-bizkaia-n3-data = {
```

```
  "con": "EEEL",
  "apa": "ARS",
  "inte": {
    "nif": "número de identificación fiscal",
    "nrs": "nombre o Razón social",
    "ap1": "primer apellido",
    "ap2": "segundo apellido"
  },
  "drs": {
    "mode": "140",
    "ejer": "2024"
  }
}
```

#### 4.4 XML fitxategiaren goiburuaren edukia

Funtzionaltasun asinkrono baten **eskabidearen** web-zerbitzura deitzeko, honako datu hauek jakinarazi behar dira **XML fitxategiaren goiburuan**:

- Eredua: datuak kontsultatu nahi diren eredua da (140 edo 240).
- Kapituluak: eskatu den funtzionaltasunari dagokiona. Eremua aukerakoa da.
- Azpikapituluak: eskatu den funtzionaltasunari dagokiona. Eremua aukerakoa da.
- Eragiketa: eskatu den funtzionaltasunari dagokiona.
- Bertsioa: 1.0
- Ekitaldia: datuak kontsultatu nahi diren EEELren ekitaldia.
- Zergapekoa: datuak eskatzen diren zergapekoaren datuak (fisikoa ala juridikoa):
  - IFZ.
  - Abizenak eta izena edo sozietatearen izena.

Adibidez, 2024ko laburpen-idazpenak eskatu nahi dituen 140 eredua dagokion zergapekoak honako datu hauek bidali behar ditu:

```
<Cabecera>
  <Modelo>140</Modelo>
  <Operacion>ARS</Operacion>
  <Version>1.0</Version>
  <Ejercicio>2024</Ejercicio>
  <ObligadoTributario>
    <NIF>Identifikazio fiskalerako zenbakia</NIF>
    <ApellidosNombreRazonSocial>Izen-abizenak
  </ApellidosNombreRazonSocial>
  </ObligadoTributario>
</Cabecera>
```

Adibidean ikusi daitekeen bezala, kasu honetan ez da ez kapituluak ez azpikapituluak bidali behar.

## 5 FUNTZIONALITASUN ASINKRONOAK

Ondoren, BFAk zergapekoen eskura jartzen dituen funtzionaltasun asinkronoak zerrendatuko dira:

- Laburpen-idazpena.
- Hartzailea duten fakturak.
- Emandako fakturak.

### 5.1 Laburpen-izendapena

Laburpen-izendapenen sorrera 140 eta 240 erduetarako dago eskuragarri. Gainera, software bermatzailearekin eta software bermatzailearik gabe egingo dira, hau da, 1.1 eta 1.2 azpikapituluetakoko fakturak, nahiz eta idazpen ezberdinetan egiten diren.

Funtzionaltasun asinkrono horri honako balio hauek ematen zaizkio:

- Eskaera:
  - JSONaren Atala (*apa*) eremuaren balioa: ARS.
  - XLM fitxategiaren Eragiketa eremuaren balioa: ARS.
- Kontsulta:
  - JSONaren Atala (*apa*) eremuaren balioa: ARC.
  - XLM fitxategiaren Eragiketa eremuaren balioa: ARC.

Eskabidean nahiz kontsultan, XML fitxategiaren goiburuan kapitulu eta azpikapitulu eremuak ez dira bidali behar, hau da, ez dira bete behar, “XML fitxategiaren goiburuaren edukia” ataleko adibidean ikusi daitekeen moduan.

#### 5.1.1 Ezaugarriak

Laburpen-idazpen baten eskabidea egiterakoan haxe adierazi behar da:

- Eguneko gehienez ere hiru eskabide egin ahal dira.
- *Amaitzeko data* eremua, gutxienez, egungo data baino zazpi egun lehenagokoa izan behar du. Adibidez, funtzionaltasun hori apirilaren 22an eskatzen bada, *amaitzeko data* ezin da apirilaren 15a baino ondorengokoa izan.
- *Hasteko data* eta *amaitzeko data* eremuak hilabete berekoak izan behar dira.
- Ez da onartuko *Gaitutako ordezkari* batek, halakotzat jarduten duen bitartean, laburpen-idazpenak eskatzea.
- Ez da onartuko faktura-kopuru handia duten zergadunak funtzionaltasun hori erabiltzea.
- Funtzionaltasun hau eskuragarri egongo da eskaera egin eta ordu batera, salbuespenak salbuespen. Zazpi egunez egongo da eskuragarri. Data hori igaro ondoren ezin izango da kontsultatu.

##### 5.1.1.1 Fakturak hautatzeko irizpideak

Fakturrek laburpen-idazpen baten parte izateko bete behar dituzten baldintzak honako hauek dira:

- Faktura erraztuak.
- Hartzailearik gabe.
- *Zuzenak* edo *Akatsekin onartuak* izatea, hau da, *Ezeztatuta EZ* egotea.
- Faktura bakoitzak xehakapen-mota edukitzea.

Honako faktura-mota hauek baztertuko dira:

- 1.2 azpikapituluaren laburpen-idazpenak.
- Faktura erraztuaren ordeztasunak.

#### 5.1.1.2 Multzokatzeko irizpideak

Idazpen berean zein faktura sartzen diren erabakitze kontuan hartzen diren eremuak honako hauek dira:

- Azpikapituluak.
- Emate-data.
- Eragiketa-data: eragiketa-datarik ez duten fakturek edo data emate-dataren berdina bada, laburpen-ebazpen berdinen parte dira.
- Seriea.
- Faktura zuzentzailearen kodea.
- Faktura zuzentzaile mota.

Hau da, eremu horietan balio bera duten fakturekin laburpen-idazpen bat egingo da.

#### 5.1.2 XSD eskemak

Honako hauek dira funtzionaltasun asinkrono horri lotutako XSD eskemak:

- LROE\_ARS\_AsientosResumen\_SolicitudPetition\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_ARS\_AsientosResumen\_SolicitudRespuesta\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_ARC\_AsientosResumen\_ConsultaPetition\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_ARC\_AsientosResumen\_ConsultaRespuesta\_VX\_X\_X.xsd.

### 5.2 Hartzailea duten fakturak

Igorritako hartzailearen fakturen kontsulta 140 eta 240 ereduarentzat dago eskuragarri. Gainera, software bermatzailearekin eta software bermatzailearik gabe egingo dira, hau da, 1.1 eta 1.2 azpikapituluaren igorritako fakturak.

Funtzionaltasun asinkrono horri honako balio hauek ematen zaizkio:

- Eskabidea:
  - JSONaren Atala (*apa*) eremuaren balioa: FDS.
  - XLM fitxategiaren Eragiketa eremuaren balioa: FDS.
- Kontsulta:
  - JSONaren Atala (*apa*) eremuaren balioa: FDC.
  - XLM fitxategiaren Eragiketa eremuaren balioa: FDC.

#### 5.2.1 Ezaugarriak

Hartzailea duten fakturen kontsulta egiterakoan honako hau ezartzen da:

- Eguneko gehienez ere hiru eskabide egin ahal dira.
- *Amaitzeko data* eremua, gutxienez, egungo data baino zazpi egun lehenagokoa izan behar du. Adibidez, funtzionaltasun hori apirilaren 22an eskatzen bada, *amaitzeko data* ezin da apirilaren 15a baino ondorengokoa izan.
- *Hasteko data* eta *amaitzeko data* eremuak hilabete berekoak izan behar dira.
- Ez da onartuko *Gaitutako ordezkari* batek, halakotzat jarduten duen bitartean, laburpen-idazpenak eskatzea.

- Ez da onartuko faktura-kopuru handia duten zergadunak funtzionaltasun hori erabiltzea.
- Funtzionaltasun hori eskuragarri egongo da eskaera egin eta ordu batera, salbuespenak salbuespen. Zazpi egunez egongo da eskuragarri. Data hori igaro ondoren ezin izango da kontsultatu.

#### 5.2.1.1 Fakturak hautatzeko irizpideak

Igorritako fakturak bete behar dituzten baldintzak honako hauek dira:

- Hartzailearekin.

#### 5.2.2 XSD eskemak

Honako hauek dira funtzionaltasun asinkrono horri lotutako XSD eskemak:

- LROE\_FDS\_FacturasConDestinatario\_SolicitudPetition\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_FDS\_FacturasConDestinatario\_SolicitudRespuesta\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_FDC\_FacturasConDestinatario\_ConsultaPetition\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_FDC\_FacturasConDestinatario\_ConsultaRespuesta\_VX\_X\_X.xsd.

### 5.3 Emandako fakturak

Emandako fakturen kontsulta soilik 240. ereduarentzako dago eskuragarri. Beharrezkoa izango da zehaztea zein azpikapitulu kontsultatu nahi den, software bermatzailea duten ala ez, hau da, 1.1. edo 1.2. azpikapituluetakoa jaulkitako fakturak diren.

Funtzionaltasun asinkrono horri honako balio hauek ematen zaizkio:

- Eskabidea:
  - JSONaren Atala (*apa*) eremuaren balioa: FES.
  - XLM fitxategiaren Eragiketa eremuaren balioa: FES.
- Kontsulta:
  - JSONaren Atala (*apa*) eremuaren balioa: FEC.
  - XLM fitxategiaren Eragiketa eremuaren balioa: FEC.

#### 5.3.1 Ezaugarriak

Emandako fakturen kontsulta egitean honako hau xedatzen da:

- Kontsulta mota hori egiteko, beharrezkoa da aurretik eskaera bat egitea (5.3.1.1. puntua).
- Funtzionalitate hori soilik 240. ereduarentzako dago erabilgarri, eta faktura kopuru handia, egunero 10.000 (1.1) edo 100.000 (1.2) idazpenetik gora, kudeatzen duten obligaziodunei zuzenduta dago.
- Eguneko baimendutako gehieneko eskaera kopurua ezartzen da.
- *Noiztik* eta *noiz arte* eremuak hilabete berekoak izan behar dute eta egun batera, zazpi egunera edo hilabetera mugatu ahal izango dira, alta eskaeran adierazitakoaren arabera.
- Funtzionaltasuna kontsultatzeko eskuragarri egongo da aldeztatik zehaztutako exekuzio orduaren hurrengo orduan, salbuespenak salbuespen. Zazpi egunez egongo da eskuragarri. Data horretatik aurrera, ezingo da kontsultatu.

### 5.3.1.1 Funtzionalitatea erabiltzeko alta eskaeraren bidalketa

Kontsulta mota hori egiteko, beharrezkoa da aurretik eskaera bat egitea. Horretarako, informazio hau daukan mezu elektronikoa bidali behar da [batuz.zergak@bizkaia.eus](mailto:batuz.zergak@bizkaia.eus) helbidera:

- Obligaziodunaren IFZ.
- Obligaziodunaren sozietate izena.

### 5.3.2 XSD eskemak

Honako hauek dira funtzionaltasun asinkrono horri lotutako XSD eskemak:

- LROE\_FES\_FacturasEmitidas\_SolicitudPeticion\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_FES\_FacturasEmitidas\_SolicitudRespuesta\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_FEC\_FacturasEmitidas\_ConsultaPeticion\_VX\_X\_X.xsd.
- LROE\_FEC\_FacturasEmitidas\_ConsultaRespuesta\_VX\_X\_X.xsd.

## 6 AKATSEN KUDEAKETA

Sarreraren zerbitzura deitzerakoan, BFAko sistemek egingo dituzte baliozkotzeko, biltzeko eta dagokion erantzuna sortzeko prozesuak, eskariaren emaitzarekin batera.

**Bezeroaren aplikazioak** zerbitzuak emandako erantzuna berreskuratu behar du, hau da, bai eskaeraren HTTP goiburuan emandako parametroak bai erantzun-fitxategia (ematen bada), eta horren tratamendua egin behar du, **erroreen kudeaketa** barne.

Hona hemen errore-kodeei buruzko informazio xehatua, EEELren funtzionaltasun asinkronoen web-zerbitzuak osatzen dituzten eskaera eta egituretarako egiten diren baliozkotzeetan oinarrituta itzultzen direnak.

### 6.1 Erroreen mezuen zerrenda

Orokorrean, funtzionaltasun asinkronoen web-zerbitzuek honako errore hauek eman ditzakete, bai eskabidean bai kontsultan:

BERTSIO A	KODEA	DESKRIBAPENA
	B4_1000001	XMLak ez du eskema betetzen.
	B4_1000003	Akatsa fitxategia deskonprimatzerakoan.
	B4_1000004	Akats teknikoa.
	B4_1000006	Eredua ez dator bat pertsona motarekin.
	B4_1000008	Funtzionaltasun hori ez dago baimenduta gaitutako ordezkari batek kontsultatzeko.
1.0.1 (Berria)	B4_1000009	Betebeharpekoak ez dauka baimenik azpial horretan kontsulta masiboak egiteko.
1.0.1 (Berria)	B4_1000010	Fakturaren igorpen- edo aurkezpen-data jarri behar da.
	B4_1000011	Eskaera egiteko egun baliogabea.
	B4_1000012	Zergapekoarentzat aldi horretan baimendutako eskaeren kopurua gairitu da.
	B4_1000013	Funtzionaltasun hori ez dago baimenduta zergapekoarentzat, ohar asko dituelako.
	B4_1000014	Dagoeneko eskabide bera exekutatzeko duzu [identificador_solicitud] identifikadorearekin.
	B4_1000015	Eskaera ez dago kontsultatzeko eskuragarri.
	B4_1000016	Eskaera ez da existitzen adierazitako zergapekorako.
	B4_1000017	“Noiztik” eta “noiz arte” eremuak hilabete berekoak izan behar dira.

	B4_1000018	"Noiz arte", gutxienez, gaurko data baino zazpi egun lehenagokoa izan behar da.
<b>1.0.1</b> <b>(Berria)</b>	B4_1000019	Datek baimendutako denboraldia [Denboraldia] gainditzen dute.
	B4_1000020	Goiburuan adierazitako eredia ez dator bat edukian adierazitakoarekin.
	B4_1000021	Goiburuan adierazitako ekitaldia ez dator bat edukian adierazitakoarekin.
	B4_1000022	Goiburuan adierazitako interesdunaren IFZ ez dator bat zergadunarenarekin.
	B4_1000023	Kapitulua ez dator bat adierazitako ereduarekin eta atalarekin.
	B4_1000024	Azpikapitulua ez dator bat adierazitako ereduarekin eta atalarekin.
	B4_1000025	Okerreko eragiketa.
	B4_1000026	Atal okerra.
	B4_1000027	Noiztik-noiz arte data okerra.
	B4_1000028	Zerbitzuak itzul ditzakeen emaitzen gehieneko kopurua gainditu da. Mesedez, findu bilaketa parametroak/iragazkiak erabiliz emaitza kopurua murrizteko.
	B4_1000029	Eskatutako orrialdea kontsultak itzultzen dituen orrialde guztiena baino handiagoa da.
	B4_1000030	Goiburuan adierazitako interesdunaren izen-abizenak eta sozietate izena ez datoz bat zergadunarenekin.
	B4_2000000	Eremu hori nahitaezkoa da; hortaz, bete behar da: [Izena_eremua].